

#23 / 2021 ABENDUA

arteKa

**Euskara eta
arrakalak**

GEDAR

Hizkuntza-instituzionalizazio burgesa ezgai da, bistan denez, euskara bazterreko egoera batetik ateratzeko. Izan ere, alde batetik euskaraz bizi nahi duen arren, bestetik ezin du bizi euskara negozio bilakatu gabe, edo euskarak ematen dizkion etekin ekonomiko horiek gabe, eta horrek euskararen hedapena baldintzatu egiten du. Gainera, jakina da bazterrean egoteak ematen duen biziak eta konfrontaziorako aukerak elikatu egiten dutela euskararen merkatua, gutxi batzuek denon lepora negozioa egin dezaten

EDUKIA GONTZENIDOO

06

EDITORIALA
ARTEKA


**Hizkuntza-
instituzionalizazio
burgesa**



ERREPORTAJEA
Jose Castillo

**Euskara klase ertainen
dekadentzia garaian**

24



ERREPORTAJEA

Peru Iparragirre

**Euskarazko liburugintza
eta literatur
merkatuaren mugak**

44



IKUSPUNTUA

Carmen Parejo

**El fascismo y el Estado
Español (1922-1939)**

Hizkuntza- instituzionalizazio burgesa

EDITORIALA

Deigarria da ia eduki guztia gaztelaniaz duten egunkarietan euskarak estatu kapitalistaren administrazio publikoan duen presentzia urriaren inguruan irakurtzea. Are deigarriagoa da eduki hori euskarazko eduki apurren artean soilik irakurri ahal izatea, euskararen ingurukoek, beste guztiek ez bezala, gaztelaniaz behar luketenean.

Gaztelaniaz idatzitako egunkarietan, euskarak euskararen inguruan informatzeko balio du, euskal dantzez, idi probez, Korrikaz eta euskal pastelaz; ez, ordea, ekonomiaz edo politikaz. Auzi garrantzitsuak gaztelaniaz lantzen dira oraindik ere, eta euskara pribilegiatuen ghetto bat sortzeko baliatzen da. Izan ere, gaztelania salmentarako egokiagoa bada ere, euskarak interes handiagoa du bazterketa soziala bermatzeko eta klase ertainaren pribilegioei eusteko.

Urteetako eztabaida da. Nork baztertzen du euskara gehiago, debekatzen duenak ala administrazioa hizkuntza izatera zokoratzen duenak? Erabiltzeari uko egiten dionak ala folklore-auzietarako soilik erabiltzen duenak?

Argi da, euskarak etorkizuna izango badu, auzi erreal eta garrantzitsuekin lotzeko gaitasuna gartzeagatik izango duela, eta ez egunkarietan zein administrazioan bete beharreko ratioa izateagatik. Ez du ematen, ordea, interesa dagoenik euskara prole-

***Auzi garrantzitsuak
gaztelaniaz lantzen dira
oraindik ere, eta euskara
pribilegiatuen ghetto
bat sortzeko baliatzen
da. Izan ere, gaztelania
salmartarako egokiagoa
bada ere, euskarak interes
handiagoa du bazterketa
soziala bermatzeko
eta klase ertainaren
pribilegioei eusteko***

Ez du ematen, ordea, interesa dagoenik euskara proletalgoaren masa-hizkuntza bilakatzeko; ez euskal elite intelektual eta kulturalaren partetik, bederen. Askok nahiago du euskara urre forma hartzen duen altxor preziatu bat izatea, pobreen artean debaluatzen ikustea baino

talgoaren masa-hizkuntza bilakatzeko; ez euskal elite intelektual eta kulturalaren partetik, bederen. Askok nahiago du euskara urre forma hartzen duen altxor preziatu bat izatea, pobreen artean debaluatzen ikustea baino.

Hizkuntzarekiko zorrotasunak eta bulegoetan hartzen diren zuzentasunaren eta purutasunaren inguruko erabakiek traba gehiago jartzen dizkiote euskarari, haren erabilera erraztu baino. Kostata hitz egiten duenarekiko trufa eta garbizalekeria ere nahiko agerikoak dira eliteko euskal hiztunen artean. Euskara gutxitu bat negozioa da, merkatua murriztu arren haren prezioa handitu egiten duelako. Adibidez, nekez sal zitezkeen zenbait literatur material, euskaraz idatziak izan ez balira.

Euskara askorentzako bizi baliabide bilakatu da; lanerako sarbidea errazten du konpetentzia txikituz, edota zuzenean saldu egiten da, hezkuntza pribatuan nahiz kontsumo gaien forman. Euskararen egoeratik etekina ateratzen duten horiek ez dute egoera hori aldatzea nahi. Ezer gutxi lagunduko lioke horietakoren bati hizkuntza gutxitua izateari utziko balio, horrek dakartzan ondorioekin: hezkuntza unibertsala eta doakoa izatea, kalitatez irakasten dena eta bazterketarako aukerarik ematen ez duena, guztion eskura da-

goena eta euskal hiztunen artean hierarkiak sortzen ez dituen, salgai ez dena...

Bidegabekeria justifikatzeko aitzakia ere bilakatu da euskara: soldata baxuak, lan baldintza okerrak, «kausari» emandako ordu estrak... Egunero ko ogia dira euskara merkantzia gisa saltzen duten hezkuntza zentro desberdinetan, baina isildu egiten dira, euskararen izenean. Euskarak errenta altuetan aurkitzen badu bere erro soziala, era berean, errenta altuak lortzeko baliabidea da. Bere zokoratze sozialaren etekin ekonomikoak baino ez dira bata zein bestea, eta ez dira gertatzen euskara ikastunen edota aristokraten hizkuntza delako berez, ez eta horretarako ezaugarri bereziak dituelako ere.

Urri eta bitxi denak konpetentziaren legeak hausteko gaitasuna du, merkatu zehatz batean baldintza berriak txertatuta. Urri eta bitxi dena urri eta bitxi mantentzeko legeak, diru laguntza espezifikoak... Salbuespen neurriak hartzen dira, zeintzuek, azken finean, monopolio errenta bat eskuratzeko aukera ematen duten, hau da, errentagarri egiten duten errentagarri ez dena. Nahita edo halabeharrez txikitutako merkatu batean, baina era berean bere beharrezkotasuna eta garrantzia aldarrikatzen dituen eta sozialki errotuta dagoen merkatu batean, administrazio publikoen diru txertaketa ezinbesteko bilakatzen da sarri. Euskarak kapitalaren esta-

“

*Bidegabekeria justifikatzeko
aitzakia ere bilakatu da
euskara: soldata baxuak,
lan baldintza okerrak,
«kausari» emandako ordu
estrak... Eguneroko ogia
dira euskara merkantzia
gisa saltzen duten hezkuntza
zentro desberdinetan,
baina isildu egiten dira,
euskararen izenean*

tuari esker irauten du kapitalismoan. Saltzen dute-nek gutxi sal dadin nahi dute, haiena asko saltzeko, ikasia denak besteek ikasi ez dezaten nahi duen bezala, lanean konpetentziarik ez izateko.

Euskara, beraz, nahiaren eta ezinaren artean mugitzen da sistema kapitalistan. Alde batetik, askok ikas dezan bilatzen da dirulaguntza publikoen bitartez, baina bestetik, politika publiko horiek bideragarriak dira eta publiko objektiboa dute, hain zuzen, inor gutxi ikasten badu euskara. Horri lotu behar zaio ikastea eta erabiltzea desberdinak direla, eta ikasketa masibo batek askorentzat interesa baldin badu ere, erabilera urriak bilakatzen du euskara altxor preziatu eta salmentarako gai errentagarri.

Hizkuntza eskakizunek, euskararen erabilera sustatu ordez, bere zokoratzean laguntzen dute, euskara estratu sozial batean errotuz baina etorkizunetik –hots, proletalgotik eta bere askapen mugimendutik– aldentuz, gero eta gehiago. Euskararen inguruan sortu den eliteak ez dio euskarari laguntzen, baina bere egoera latzaren adierazpena da. Jende askok soilik lanerako sarbide gisa ikasten du euskara; eta gainera horrela aritu ohi direnak izan ohi dira mugimendu zabaletatik, errotze sozialetik, urrunen ibili ohi diren estratu aristokratak; hots, langile klasearen goi kapak, mugimendu bizia ordezkatu ordez, burgesiaren kulturaren eta klasismoaren ordezkari direnak.

Hizkuntza-instituzionalizazio burgesa ezgai da, bistan denez, euskara bazterreko egoera batetik ateratzeko. Izan ere, alde batetik euskaraz bizi nahi duen arren, bestetik ezin du bizi euskara negozio bilakatu gabe, edo euskarak ematen dizkion etekin ekonomiko horiek gabe, eta horrek euskararen hedapena baldintzatu egiten du. Gainera, jakina da bazterrean egoteak ematen duen biziak eta konfrontaziorako aukerak elikatu egiten dutela euskararen merkatua, gutxi batzuek denon lepora negozioa egin dezaten. Hedapen mugatua badu soilik biziraun dezake euskararen merkatu zabal horrek; alegia, altxor bitxi bat izaten jarraitzen badu eta trukean dirulaguntzak jasotzen baditu. Euskarak biziraun nahi badu, ordea, merkatutik irten eta proletalgoaren hizkuntza bilakatu behar du; bere lekua hartu iraultza sozialistaren prozesuan. /

ERREPORTAJEA

Testua
Jose Castillo

Irudia
Laida Blasco

Nik  Euskara

Euskara klase ertainen dekadentzia garaian

  **Nik Euskara**  

Koiuntura historiko sozioekonomikoak izan dezake eragin erabakigarria hizkuntza gutxitu baten historian. Euskarak izan zuen euskal ongizate estatuaren eraikuntza garaian honi lotzeko eta bere lekua bilatzeko aukera, gizarte honen krisi garaian, ordea, euskararen etorkizuna bera kolokan egon liteke. Bere erreprodukzioa bermatzen zuten erakunde politiko, ekonomiko eta sozialak krisian baitaude. Baita berau ordezkatzeko zuen klase ertainen gizartea eta kohesioa bera ere.

Hizkuntz gatazka orok ezkutatzen du haren pean gatazka sozial bat. Hizkuntzak elementu ideologiko garrantzitsuak dira botere erlazio jakin batzuk sortzeko, mantentzeko eta aldatzerako orduan. Historian, gizarte aurrekapitalistetan eta kapitalistetan, beti existitu izan dira eliteek erabilitako hizkuntzak eta herri xumeak erabilitakoak. Askotan, hizkuntza bera izanagatik ere, hitz batzuen aldaerak markatzen zuen klase ezberdintasun hori. Adibidez, Lituania beti izan da polonieraz hitz egiten duen populazioaren zati txiki bat, preseski, elite feudala osatzen zuen taldea zen. Beraz, Lituaniako kasuan ezberdintasuna ez zen «etnikoa» edo «linguistikoa» bakarrik, klase artekoa baizik^[1].

Gurera etorrita, analisi historiografiko serioek, hau da, kutsu nazionalista propagandista hutsetik at egindakoek, esaten digute Euskal Herrian euskara ez dela inoiz eliteen hizkuntza izan. Are gehiago, Nafarroako Erreina hartu nahi bada Euskal Herriak aro modernora arte izan duen «protoestatu» feudal bakar gisa, ziurta dezakegu bertako elite feudalen eta klerikalen hizkuntza nagusia erromanikoa zela, ez euskara. Nahiz eta azken hori herri xumeak gehien hitz egiten zena izan^[2]. Oso garrantzizkoa da jakitea zein den eliteen hizkuntza eta zein klase soziali esleitzen zaion hizkuntza jakin baten errepresentazioa aldaketa sozialen gidaritzan. Burgesiak hizkuntza jakin bat bere lurralde osoan zehar nazionalizatuz sortu zituen Estatu-nazio modernoak. Izan ere, hizkuntza batasun minimorik gabe ezin zitekeen soldatapeko lan prozesu interkonektaturik au-

rrera eraman, baldintza errentagarritan behintzat.

Beraz, «paradoxa» historiko baten aurrean aurkitzen gara. Historian euskara ez da ez eliteen hizkuntza izan, ezta burgesia modernizatzaile baten lehen hizkuntz hautua ere. Baina, gaur egun, euskarak bizirik badirau, XX. mendean klase sozial jakin bati lotu eta modernizazio kapitalistan parte hartzen asmatu zuelako da. Euskarak, XX. mendean landatik eremu administratibo-estatalera egin zuen jauzi, era nabarmenean autonomia erkidegoen sorrerarekin batera, horiek zekarten aparatu administratiboan txertatu zenean.

Esan nahi dena da, frankismoaren amaieran eta garai «demokratikoa» hastapenetan, baldintzak jarri zirela klase ertain euskaldun baten sorrerarako, hauek oso loturik zeudenak ongizate estatuaren aparatu administratibora. Egun, ordea, ongizate estatuaren paradigmaren amaieran gaude, klase ertainen proletarizazio garaian. Erreportaje honek honako galderari erantzutea du helburu: ¿klase ertain euskalduna desagertzen bada, nola eutsiko dio euskarak?

Hizkuntzak elementu ideologiko garrantzitsuak dira botere erlazio jakin batzuk sortzeko, mantentzeko eta aldatzerako orduan





Gaur egun, euskarak bizirik badirau, XX. mendean klase sozial jakin bati lotu eta modernizazio kapitalistan parte hartzen asmatu zuelako da. Euskarak, XX. mendean landatik eremu administratiboezatalera egin zuen jauzi

Horrez gain, hasieratik argi utzi behar da honakoa ez dela datu zehatzetan oinarritutako analisi soziolinguistiko bat. Aitzitik, hemen hipotesi sozial eta historiko batzuk eztabaidatu nahi dira, zeinak euskararen etorkizunerako garrantzi berezia izango duten. Beraz, denboraren haizearen noranzkoari susmoa hartzen egingo da lanik handiena, euskararen erabilerari buruz jada analisi ugari baitaude publikaturik. Halaber, artikulu hau gehien bat Hego Euskal Herriko koiunturan zentratzen da, nahiz eta Ipar Euskal Herriko baliagarriak diren hipotesiak ere lantzen diren. Baina, Ipar Euskal Herriko egoerak analisi bereizi bat beharko luke.

EUSKARA, LANDATIK MODERNIZAZIORA

XIX. mende amaierara arte euskara landa eta nekazaritza eremuetako hizkuntza nagusia zen, eta, gaztelania, aldiz, euskal herritar askorentzat hizkuntza ia ezezaguna zen. Alabaina, mende amaierako industrializazioak eta garapen ekonomikoak bultzatuta, gaztelania hirietako hizkuntza nagusia bilakatu zen. Espainiako Estatuko herrietako lehen immigrazio uholde nagusia izan zen, baina euskarak eutsi zion. Hein handi batean, lehen nazionalismo kontserbadoreak garrantzia eman ziolako, eta, gerora, Espainiako Bigarren Errepublikara garaian ezkerreko alderdi ugari bere egin zutelako euskara mantentzearen aldarria. Hemen koka dezakegu Eusko Abertzale Ekin-tza (ANV-EAE) alderdiaren jaiotza eta garapena.

Ondoren etorri zena arrats ondo dago gordeta euskaldun guztien oroimen kolektiboan: gerra, berrogei urteko euskararen aurkako jazarpen zorrotza eta guztiz ezabatzeke nahia izan daitezke aipatzekoak. Horrekin ez da esan nahi beste garai historiko batzuetan euskara ez zela gutxietsi edota jazarri, alderantziz, Espainiak bere eraikuntza nazionalaren homogeneizazioaren alde egin baitu beti. Kontua da, Espainiako Estatuak ez zuela Frantziako Estatu modernoak eduki zuen homogeneizazio



nazionalaren arrakasta izan modernizazio burges prozesu horretan, indar erreakzionarioek eta feudalek zuten indar handiagoarengatik.

Gure gaira bueltatuta, aipatu beharra dago, euskara frankismoan jazarria izan bazen ere, indar kontserbadoreekin zuen lotura haustea ekarri zuela. Euskara balio politiko progresista eta antifrankistekin lotu zen, eta horrek zabalpenerako zimenduak jarri zituen. Hona hemen biziraupena izanaren lehen arrazoia, pasa den mendeko hirurogeigarren hamarkadatik aurrera herri mugimenduak eman baitzion bultzada. Garai hartan gertatu zen euskararen eta euskal kulturaren pizkunde berri bat: hainbat ikastola sortu ziren, helduen euskalduntze eta alfabetatze mugimendua jaio zen, euskara batua-aren oinarriak finkatu ziren, eta euskarazko irratia, aldizkariak, kantariak, bertsolariak zein idazleak ugartzen hasi ziren.

Baina modernitate kapitalistan hizkuntza batek, era estandarizatuan biziraun nahi badu behintzat, gauza bat behar du derrigorrez: estatu egiturak. Horiek baitira hizkuntza baten erreprodukziorako eta zabalpenerako behar-beharrezkoak diren aparatuak. Horiekin batera, hizkuntza hori erabileriko duen funtzionario «armada» zabal- la behar da. Noski, frankismoa amai-

Baina modernitate kapitalistan hizkuntza batek, era estandarizatuan biziraun nahi badu behintzat, gauza bat behar du derrigorrez: estatu egiturak. Horiek baitira hizkuntza baten erreprodukziorako eta zabalpenerako behar-beharrezkoak diren aparatuak


tzean, Euskal Herriak ez zituen estatu kapitalista baten egiturak lortu, baina autonomia erkidego berezi batenak bai erdietsi zituen. Baldintza historiko horrek, euskaraz alfabetaturiko euskaldun askori administrazio publikorako atek ireki zizkien, eta horrela goratu zen haien estatus soziala.

Noski, autonomia erkidego baten egitura administratiboekin batera, beste hainbat alorretako egitura sozioekonomikoak ere ireki zitzaizkion euskarari. 1980. urtean Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zen eta 1982. urtean Euskal Irrati Telebista. Nafarroako egoera ezegonkorragoa izan zen, bertan ez baitzen euskararen ofizialtasuna aitortu eremu euskaldunean ez ezik, eta horrek instituzio sozioekonomiko euskaldunak sortzeko muga garbia ezarri zuen. Zer esanik ez Ipar Euskal Herrian, non euskararen aitortze instituzionala are maila txikiagoan dagoen oraindik egun. Horregatik, Euskal Herriko modernizazio burgesa, hizkuntza mailan ulertuta, ez da inoiz guztiz osatu. Baina, hemen aipatzen ditugun mugarriok euskal hiztuna zen klase ertain bat sortzeko berebizikoak izan ziren.

Era berean, ulertu behar dugu frankismoaren azken hamarkadetan beste industrializazio uholde bat bizi izan zela Euskal Herrian, Bizkaian bereziki. Horrek beste immigrazio uholde bat ekarri zuen. Kasu honetan, izan zuen berezitasun nagusia Espainiako Estatuko landa eremuetatik euskal lurraldeetara etorritako etorkin ugariren seme-alabak euskaraz alfabetatzen hasi zirela izan zen. Horrela, belaunaldi hori ohiko lanbide industrialez gaindi, administrazio postuetara edota euskarazko lanbide liberaletara iritsi ahal izan ziren, baita euskal ongizate estatuko lanbideen parte izatera ere.

Hala ere, prozesu historiko hori azaltzerako orduan, kontuan izan behar dugu Espainiako Estatuak oso sarrera berantiarra izan zuela klase ertainen eta ongizate estatuaren gizarte europarrera. Izan ere, Europa mendealdeko herrialdeetan ongizate estatu gisa ezagutu zen aparatua 50eko eta

Euskal Herriko modernizazio burgesa, hizkuntza mailan ulertuta, ez da inoiz guztiz osatu. Baina, hemen aipatzen ditugun mugarriok euskal hiztuna zen klase ertain bat sortzeko berebizikoak izan ziren





60eko hamarkadetan zehar eraiki zen arren, Espainiako Estatuan, erregimen frankistak oztopatuta, 60eko hamarkadako bigarren erdialdera arte edota 70eko hamarkada hasierara arte ez zen izan gainerako Europa mendebaldearekin alderatu zitekeen ezer. Hori paradoxa historiko nahiko bitxia da, izan ere, Espainiako Estatuan ongizate estatua garatzen hasi zenerako, Europan jada horren dekadentzia aroa hastear zegoen, neoliberalismo edota kapitalismoaren etapa postfordista deitu izan dena finkatzen hasi baitzen. Noski, Espainiako Estatuak, modernizazio prozesuan zegoela, 70eko hamarkadako krisiak bete-betean harrapatu zuen, eta 80eko hamarkada hasierarako desindustrializazio prozesua hasi zen; horrela galarazi zion ongizate estatu benetan indartsu bat sortzeko beharrezkoa den ehun produktiboa garatzea.

Alabaina, auzi ekonomikoaz gain, Espainiako Estatuak garaiko Europako Ekonomia Erkidegora batu nahi bazuen, estatu burges-demokratiko baten egiturak eraiki behar zituen. Frankismo amaieran, langile mugimenduekin batera, auzi nazionala zen erregimena kolokan jartzen zuen gatazka sozial nagusia. Europako gainerako estatu burgesen taldean homologatzeko, Espainiako Estatuak zituen gatazka politiko nagusi horiek neutralizatu eta instituzionalizatu behar zituen. Frantziako Estatuak lehenago frogatu zuen bezala, kapitalarentzat eta horren kudeatzaile politikoentzat, talde sozial gatazka-tsuenei estatuaren aparatuaren postuetan integrazioa irekitzea bide egokia izan daiteke neutralizatze^[3].

Horregatik, Espainiako eliteek, euskal nazionalismo kontserbadorearekin batera, ondo ulertu zuten euskal nazio gatazka Espainiako erregimen demokratiko-burges berrian neutralizatze-ko, administrazio egituretan toki bat egin behar zitzaiola euskal funtzionario multzo bati. Horrek, jakina, ez zuen euskal gatazkaren guztizko ezabapena eragin, ezta gutxiagorik ere. Baina, euskal administrazioan, langile publiko gisa, lan egingo zuten langile ehun bat

sortzea ahalbidetu zuen. Hezkuntzan lan egingo zutenak edota osasungintzan lan egingo zutenak ere batu behar zaizkio.


Horrela, euskararen jakintza populazioaren zati garrantzitsu batentzat lanpostu publiko baten bermetzat jotzen hasi zen. Are gehiago, kontuan hartzen badugu autonomia erkidegoen hastapenak justuki desindustrializazio garaiarekin bat egiten duela. Beraz, euskaldun zaharren seme-alaba ugari, baina baita Estatuko beste lurraldeetatik etorritako langileen seme-alabek ere, euskal administrazio publiko berrian postu bat izatea hartu zuten lan etorkizun egonkortzat.

Ezbairik gabe, euskal klase ertainen gizarte bat sortzeak berebiziko garrantzia izan zuen euskararen bizi-raupenean. 1981ean, gutxi gorabehera, 596.000 euskal hiztun zeuden Euskal Herrian, bizilagunen % 20,35. 120 urte lehenago, 1860an edo, 500.000 pertsonak zuten euskara hizkuntza nagusi gisa, hots, bizilagunen % 55 inguruk^[4]. Hau da, proportzioa gutxitu da, horregatik diogu Euskal Herrian euskara ezabatzen saiatzeko politika kontziente bat existitu dela. Horri, esan bezala, modernizazio kapitalistaren prozesua eta immigrazioaren fenomenoak batu behar zaizkio.

Hala ere, frankismo amaieran herri mugimendu euskaltzaleak eta nazio gatazkak euskarari emandako bultzadari gehitu behar zaio hura neutralizatze-ko espainiar eta euskal elite politiko berriek euskaldunen nolabaiteko klase ertaina sortzeko ahalegina, horiek izan

Espainiako eliteek, euskal nazionalismo kontserbadorearekin batera, ondo ulertu zuten euskal nazio gatazka Espainiako erregimen demokratiko-burges berrian neutralizatze-ko, administrazio egituretan toki bat egin behar zitzaiola euskal funtzionario multzo bati

**Hipotesi bezala, baina ez
hipotesi bakar bezala eta
sakonean landu beharrekoa,
esan dezakegu gizarte
integrazioan, hau da, klase
ertainen gizarte horretara
sarbide izateko zuen paperean,
goia jo duela euskarak**



baitziren euskararen biziraupenaren arrazoiak. Noski, biziraupen prekariora eta ahula izan da, ez baita lortu administrazio publiko guztia euskaraz hitz egiteko gai izatea ere. Alabaina, frankismoaren amaieratik XX. mende amaierara arteko tartean euskal klase ertainen gizarte bat sortu zela ezin uka daitekeen egitate historiko bat da.

KRISI KAPITALISTA, EUSKARAREN KRISIA

Inkesta eta ikerketa soziolinguistikoko gehienek egungo euskararen egoerari buruz bi datu nagusi partekatzen dituzte: euskararen jakintza maila etengabe igotzen joan den arren, azken urteetan kale erabilerari dagokionez beherakada nabari da. Hipotesi bezala, baina ez hipotesi bakar bezala eta sakonean landu beharrekoa, esan dezakegu gizarte integrazioan, hau da, klase ertainen gizarte horretara sarbide izateko zuen paperean, goia jo duela euskarak, edo muga handi baten aurrean aurkitzen dela. Kapitalismoa etapa neoliberealean sartzeak^[5] Euskal Herrian ere izan ditu ondorioak, administrazio publikoko zein hezkuntzako postuak ez baitira ugaritzen, eta hauek jada euskal familietatik datozen ondorengoetan endekaturik daude. Gainera, Espainiako Estatuaren kanpotik datozen familia etorkinetako kideek kasik ez dute horietara sarbiderik.

Baieztapen hau polemikoa izan ba daiteke ere, errealitateak erakusten du euskara, lehen hizkuntzaz gain, askorentzat estatus sozial maila duina mantentzeko tresna ere bilakatu dela, proletarizazio prozesua ekidin ahal izateko azken defentsa gisa. Horrek, ordea, euskararen mundua asko lotzen du estatus sozial jakin bateko udalerriekin eta lanpostu oso jakin batzuekin. Horrela, errealitate honek euskararen kale erabileran zein zabalpenean ondorio garbiak ditu.

Pasa den ARTEKA batean, Paul Beitiak, errenta datuei eta euskararen erabilerari buruz ikertutako txostenetan oinarrituta, argi zioen euskararen presentzia nabarmen igotzen zela errenta

ertain-altuko udalerrietan eta landa eremuetan^[6]. Aitzitik, hiri eremuko periferia pobretuetan baxuagoak ziren datuak. Orain urtebete inguru, Joseba Zalakain ikerlariak *Berria* egunkarian argitaratu zuen iritzi artikulua ere polemika ugari sortu zuen. Hala ere, bertako datuak eztaba daezinak dira. Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko inkestaren arabera, argi dago pobrezia egoeren eta hizkuntza ezagupenaren arteko lotura: ama hizkuntza euskara dutenen artean pobrezia tasa % 8koa da; gaztelera dutenen artean, % 16koa, eta beste hizkuntza bat dutenen artean, % 58koa. Hori dena Euskal Herrian errenta kohesio gehien duen lurraldean eta euskara erabileraren altuena duenean gertatzen da^[7].

Errealitateak erakusten du euskara, lehen hizkuntzaz gain, askorentzat estatus sozial maila duina mantentzeko tresna ere bilakatu dela, proletarizazio prozesua ekidin ahal izateko azken defentsa gisa



Halaber, hezkuntzako datuei erreparatzea ezinbestekoa da egungo euskararen joerari buruz analisi egoki bat egiteko. Berriz ere Beitiak idatzitako analisiari erreferentzia eginez, Eusko Jaurlaritzak, EAEko lurraldeentzat, VI. Inkesta Soziolinguistikoa eman-dako datuak azpimarra daitezke: EAEn Lehen Hezkuntza A eredu (gaztelania nagusi den hezkuntza eredu) zentro publikoetan egiten duten ikasleen artean, % 86,1 errenta maila baxukoa edo erdi-behe mailakoa da. Hala ere, maila sozioekonomiko altuenetako familien seme-alabak ere biltzen dira hezkuntza eredu honetan, izan ere, itunpeko A eredu baitago maila sozioekonomiko altuko ikasle gehien, % 35,7. B eredu publikoan ere antzeko kopuruak daude: sozioekonomikoki, ikasleen % 73,1 da behe edo erdi-behe mailakoa. EAEko D eredu, aldiz, dezentente jaisten dira maila sozioekonomiko baxueneko tasak: % 22,4 itunpekoetan eta % 19,7 publikoetan, eta ikasleen % 28,8 kokatzen da goi mailakoen taldean.

Datuetatik bi ondorio erator daitezke. Lehenengoa, EAEn behintzat, «getifikazio» prozesu bat dagoela; euskarak zailtasunak baititu arnasmuneetatik haratago ateratzeko, eta argi dago arnasmune horiek klase sozial bati atxikirik daudela. Bigarrena, euskarak klase ertainen gizartean garai batean zen igogailu sozial hura izateari utzi diola, etorkin berrien familia askorentzat behintzat. Euskal klase ertainen gizarte hori sortzea ahalbidetu zuten baldintza ekonomikoak atzeraldian daudenez, etorkinen eta familia erdaldunen integrazioa ziurtatu zezaketen baliabide, zerbitzu zein lanpostuen atzeraldi edota endekapena ere bizi dugu. Horrek euskararen erabilera familia proletario askorentzat funtsezko faktore ez izatea bilakatzea ekarri du.





EUSKARAREN AZKEN AUKERA

ARTEKAN bertan Aitor Bizkarrak idatzitako beste artikuluko batean, aipatzen zuen hark ere euskararen «bigarren heriotzaren oinarrian» kapitalaren metaketa-ziklo postfordistaren agortzea eta klase ertainen gainbehera zeudela^[8]. Horri faktore geopolitikoa gehi geniezaioke, izan ere, kapitalaren metaketa ziko amaiera honetan, eta berria irekitzeko berregituraketa garaian, administrazio eta botere gune transnazional handiak garrantzia hartzen ari dira. Argi dago, egun banatzen ari diren europar funtsei loturik, Europar Batasunean administrazio eta langile publikoek hartuko duten garrantzia. Postu horietarako oposizioak prestatzeko euskarak nekez izan lezake paper funtsezkorik.

Baina egungo kapitalaren berregituraketak argi uzten du nolabaiteko blokeen arteko lehia handi baterantz goazela. Bertan, Europar Batasunak

Berregituraketa eta krisi garai latzean dagoen ziklo ekonomikoari, euskal gatazkaren intentsitatea gutxitu izana eta Espainiako Estatuak zentralizaziorako erakusten duen joera gehitzen badizkiogu, euskararen erreprodukziorako tresna kapitalistak agortzen ari direla kontura gaitezke



bere tokia bilatuko du Estatu Batuen eta Txinaren arteko hegemoniaren lehian. Horrek estatuz gaindiko superstrukturen indartzea ekarriko du, eta erregioetako egiturak bigarren mailan gera daitezke. Bestela esanda, euskara bezalako hizkuntza gutxitu bati bideratutako diru funts guztiak murrizten joango direla. Adibidez, Europako kapitalismoa garai berrira moldatzea helburu duten europar funtsek ez dute inolako diru sortarik aurreikusten hizkuntza gutxituen hedapenarentzat eta laguntzarentzat.

Gainera, berregituraketa eta krisi garai latzean dagoen ziklo ekonomikoari, euskal gatazkaren intentsitatea gutxitu izana eta Espainiako Estatuak zentralizaziorako erakusten duen joera gehitzen badizkiogu, euskararen erreproduktzioarako tresna kapitalistak agortzen ari direla kontura gaitezke. Batzuentzat, irtenbidea euskara negozio kate handietan integratzea izan liteke, eta hori babesten dute euskarak Netflix bezalako entretenimendu multinazional erraldoietan sarbidea izan dezakeela uste dutenek, aukera horiek orain arte antzuak direla erakutsi bada ere.

Bestetik, euskara proletarizazio prozesuari erantzun baikortzat har daiteke, hau da, kapitalismoaren egungo krisiari eta pobretze joerari kontrajarriko zaion elementu gisa. Analisi horretan, zertzelada batzuk eman dira euskarak gizarte kapitalista beherakor bateko zikloan galtzeko guztiak dituela antzemateko. Beraz, gorakorra izango den estrategia bati lotu behar zaio euskararen afera, horra hor estrategia sozialistak hizkuntza alorrean euskarari egin ahal dion mesede handiena. Euskararen gainbehera sostengatu izan duen euskal klase ertainen gizartearena ere badelako. /

OHARRAK

1 Honako adibidea Xabier Zabaltza historialariaren *Una historia de las lenguas y los nacionalismos* (Gedisa, 2006) liburutik hartutakoa da. Seigarren kapituluari, Zabaltzak hizkuntzaren eta klasearen arteko erlazio historikoak aztertzen ditu, beste hainbat adibide historiko eskainiz.

2 Nafarroaren eta euskararen arteko erlazio historikoan gehiago sakontzeko, Zabaltza, Xabier (2013): «De la *lingua navarrorum* al estado vasco», *Historia Contemporánea*, 47: 471-492.

3 Frantziako Estatuak Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean, oso langile mugimendu antolatua eta indartsua zuen bere mugen barnean. Hori desartikulatze egingako saiakera nagusienetako bat, langile mugimenduko hainbat kideri estatu administrazioarako ateak irekitzea izan zen. Horrela, langile jatorriko hainbat kideri Administrazioaren Eskola Nazionalerako sarbidea eman zien.

4 Igartua, Iván eta Zabaltza, Xabier (2006): *Euskararen historia laburra*, Etxepare Euskal Institutua: euskal kultura sailaren editorea, Donostia.

5 Etapa neoliberalaz edota postfordistaz gehiago sakontzeko, Harvey, David (2007): *Breve historia del neoliberalismo*, Akal, Madril. Espainiako Estatuan izan duen garapena ikusteko, James Petras (1995) soziologo estatubatuararen *Informe Petras* famatua kontsulta daiteke edota Vicenç Navarro (2004) ekonomialariaren *El estado de bienestar en España* ikerketa txostena.

6 Beitia, Paul (2021): «Euskara eta maila sozioekonomikoa: errepaso soziolinguistikoa bat», ARTEKA / GEDAR LANGILE KAZETA, ekainaren 3a.

7 Zalakain, Joseba (2020): «Pobreen hizkuntzak», *Berria*, urriaren 15a.

8 Bizkarra, Aitor (2021): «Danok ikusten degu: euskera galdu da», ARTEKA / GEDAR LANGILE KAZETA, ekainaren 15a.



ERREPORTAJEA

Testua
Peru Iparragirre

Irudia
Lander Moreno

Euskarazko liburugintza eta literatur merkatuaren mugak

«Ekoizten ari garen euskararekin, irakurleak aspertzen ari gara. Liburuak ez dira saltzen. Literatura artifizial bat egiten ari gara. Ez dakigu herriaren erraietara jaisten, eta herriak ihes egiten du; etsigarria da, baiki, gertatzen ari zaiguna. Gero eta euskara gutxiago hitz egiten da; eta gero eta gutxiago irakurtzen da».

JOSE ARIZTIMUÑO AITZOL, 1934

Euskal literaturaz asko hitz egiten da; lekua eman ohi zaio euskarazko prentsan, espazioa egina dauka derrigorrezko hezkuntzan eta akademian, zenbait euskal idazlek lortu dute halako estatus bat. Aspalditik hitz egiten da, ordea, literatur sistemak dituen gabezia ekonomikoei buruz: literatur industria txikia dela euskarazkoa, ez dela profesionalizazio-eskariari eusteko kapaz, irakurleak ere ez direla asko... Eta literatur industriaz hitz egin ez gero, agian hobe literaturaz baino *liburugintzaz* hitz egitea. Zein da euskarazko liburugintzaren egungo egoera ekonomikoa? Zein dira euskal literatur merkatuaren mugak? Zein dira horren ondorioak? Halakoxe galderetan barrena dabil ikerketa xume hau.

KULTUR INDUSTRIA GAZTE BAT, DIGLOSIAREN NEURRIRA

Muturreko egoera diglosikoak ezagarritzen du euskararen gizarte-egoera. Diglosiak zera esan nahi du, ukipenean dauden hizkuntzek betetzen dituzten funtzio sozialen desoreka, eta horrexegatik da euskararen diglosia-egoera muturrekoa: Euskal Herrian funtzio sozial *guztiak* betetzen dituztelako hegemonikoki gaztelaniak eta frantsesak. Diglosia-egoeraren oinarri materiala Euskal Herriko masa zabalaren bizitza sozialaren produkzioan eta erreproduktzioan euskarak duen sustraitze ahula da: euskarak hizkuntza ekonomiko gisa dituen egiturako gabeziak.

Diskurtso integratuak –parlamentarismo burgesaren askotariko euskal bertsioek– bestela kokatu izan dute auzia, eta haien esanera balirudike diglosiaren arazoa euskarak eremu informalean eta kale-erabileran duen beherakada progresiboan dagoela, behin instituzio burgesetako kuota –erakunde publikoetakoak, hezkuntza-koak, poliziarenak, dirulaguntzenak– bermatuta egonez gero. Planteamendua gezurtatu egin daiteke, ordea, bai analisi mailan, bai eta potentzia politikoa-ri dagokionez ere: batetik, hizkuntza-kuota publikoak eta euskarak gizarte zibilean duen sustraitze maila modu


Diglosia-egoeraren oinarri materiala Euskal Herriko masa zabalaren bizitza sozialaren produkzioan eta erreproduktzioan euskarak duen sustraitze ahula da: euskarak hizkuntza ekonomiko gisa dituen egiturako gabeziak

abstraktuan ezin bereiz daitezkeelako, eta, bestetik, instituzio burgesak babes sistema neutral gisa hartzen dituelako, haiekiko dependentzia zalantzan jarri gabe eta, are, krisi kapitalistaren testuinguruari eta paradigma horren agortze prozesuari jaramonik egin gabe. Finen, analisiak berak ulermen-marko burgesaren muga politikoak azalera-tzen ditu; instituzio burgesen mugetan kokatzen du arazoa eta baita, ondorioz, konponbidea ere.

Egoera soziolinguistikoaren oinarri materiala esandakoa da: euskarak masa zabalengan duen sustraitze-falta. Euskaldunoi, efektiboki, gaztelaniak eta frantsesak balio digute gure bizimoduaren alderdi guztietarako, eta euskarak kuota instituzionalen bidez edo ukondoka bermatzen du gaur-gaurkoz bere lekua. Horrek, jakina, ondorio nabarmenak ditu kultur bizitzaren alderdi artistikoan eta aisialdian: oro har, gaztelaniazko eta frantsesezko kultur produktuetara jotzen du euskal herri-tarren gehiengoak eta euskarazko kultur industria murrizak nekez eutsi ohi dio erdarazkoen presioari. Horren froga dira euskarazko prentsa idatziaren irakurle bakanak, ikus-entzunezkoen audientzia-maila baxuak, sare sozialen erabilera edo, gagozkion gaira etorrita, euskarazko literaturaren irakurle-kopuru urria.

Denbora erruz pasa da Bernat Etxeparerren «Euskara, / jalgi hadi plazara!» aldarritik. Ordura arte liburuan inprimaturik gabe zegoen euskarari 1545ean garaztarrak eman zion behar zuen tor-nuia, idatzi zuen inprimatutako lehen-biziko euskarazko liburua, alegia. Hizkuntza hegemonikoetan XVIII. mende amaieran hasi eta XIX. mendean zehar finkatu ziren literatur industria mo-

Efektiboki, gaztelaniak eta frantsesak balio digute gure bizimoduaren alderdi guztietarako, eta euskarak kuota instituzionalen bidez edo ukondoka bermatzen du gaur-gaurkoz bere lekua



**Oro har,
gaztelaniazko eta
frantsesezko kultur
produktuetara
jotzen du euskal
herritarren
gehiengoak eta
euskarazko kultur
industria murritzak
nekez eutsi ohi
dio erdarazkoen
presioari**

dernoak, merkatu nazionalarekin eta eragile ekonomiko-kulturalekin; euskarazkoak, ordea, XX. mendearen erdialdea igaro arte itxaron behar izan zuen literatur industriaren elementu funtsezko batzuk garatu arte. Hainbat dira fenomeno horren agerpenerako faktoreak: batetik, antifrankismoaren gakoetan pentsatutako kultur politika independente batzuk, gerra ezagutu ez zuen belaunaldi euskaltzale gazte batek hauspotuak; bestetik, eta aurrekoarekin loturan, euskarak, Frankismoaren amaierarekin bat, estatu-aparatu ahul batzuetan —Espainiako aparatu autonomikoetan— bere lekua egiten duela, koofizialtasun estatusa lortuz eta kultur industria susta zezaketen dirulaguntza publikoak agerraraziz; eta, azkenik, euskarazko literaturaren modernizazio-prozesua deitzen zaiona jazozen dela 60ko eta 70ko hamarkadetan zehar, euskarazko nobela esperimentalaren eta konbentzionalaren sorrerarekin, literatur kritikaren agerpenarekin eta, oro har, literatur sistema modernoan zenbait elementu funtsezkoen agerpenarekin.

Bistan da 1960 aurretik ere argitaratu izan zirela liburuak euskaraz, baina data horietan dituzte euskarazko literatur sistema eta liburugintza modernoak beren abiapuntuak. Argi dago sistema berantiarra dela; gaztea, gaurko egunetik begiratu. Euskaltzale antifrankisten lan militanterik gabe ulertu ezin den arren, nabarmentzekoa da euskarazko liburugintzaren industria bilakatzeko prozesua hasieratik egon zela instituzio burgesei estuki lotua eta haien parte-hartzea ere ezinbestekoa izan zela euskararen egoera soziolinguistikoa gainditu zezakeen sistema bat osatzeko. Horrek gaurdaino iraundu; ikusi eta aztertu egin beharko da, ordea, zein modutara iraun duen eta zein den gaur egungo egoera.

EUSKARAZKO LIBURUGINTZAZ ARI

Ikerketa honen helburua, ezer baino gehiago, han eta hemen argitaratutako datuetan oinarrituz euskarazko libu-

rugintzaren pisu ekonomikoaren irudi erreal bat ematea da, eta irudi horren zergatien azalpen bat ematen ahalegintzea. Izan ere, irudi hori, alde batetik zein bestetik begiratu, industria ahul batena da. Industriaz ari baikara, merkatuaz, fakturazioaz, salerosketaz eta kontsumo-ohiturez.

Ohikoa da garrasi mainatiak airera botatzea: «neurriak hartu behar dira egoera normalizatzeko». Euskarazko liburugintza ez baita normala, ezau-garritzen duen hizkuntzaren diglosia egoera dela-eta, batez ere. Euskarazko liburugintzaren industria oraindik gaztea da oso, frankismo garaiko debekuen eta errepresioaren ondorioz 40 urteko etenaldia izan baitzuen. Azken urteetan egonkortzen ari da bere joeretan. Halaber, aipatu dugun irudi ahula indartu asmoz industria sendotzea proposatu ohi da, termino ekonomikoetan zein kulturaletan, arte sorkuntzaren eta ekoizpenaren garrantziaz ari direlarik, kapital metaketaren legeen arabera funtzionatzen duen gizarte batean horrek dituen xehetasunak aipatu ere egin gabe, desjabetzea dakarren ekoizpen moduetan eta horiek betikotzeko eredu kulturean sakontzeko proposamenekin, herrikoiak eta euskaldunak izanik ere.

Ez dira literaturgintza eta liburugintza nahasi behar, baina kultur industriaz ari garelarik liburugintzari erreparatu behar ezinbestean. Eskuragarri daude euskarazko liburugintzari buruzko datu zehatz eta erabilgarriak, Ibon Sarasolak *Euskal literatura numerotan* (Kriselu, 1975) liburuan jarritako harriari eta Joan Mari Torrealdai zenak 1976tik hasita urtero *Jakin* aldizkarian egindako lanari esker, besteak beste. Liburugintzaren azterketa soziologiko sistematikoa egin zuen urtez urte Torrealdai, eta 2017tik Xabier Eizagirrek hartu dio lekukoa. Arlo ekonomikoagoa, aldiz, Euskadiko Editoreen Elkartearen enkarguz egiten den eta Eusko Jaurlaritzak argitaratzen duen *Euskarazko argitalpenei buruzko txostena*-k lantzen du. Bigarren horri eta haren osagarritzat har daitekeen 2019ko

barne merkataritzari buruzko *Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenei buruzko XXV. txostena*-ri erreparatu diegu hemen batez ere, *Jakineko* lana eta bes-telako ikerlan batzuk bistaz galdu gabe.

2020ko daturik ez dugu oraingoz eta, beraz, pandemia aurreko egoeraren irudi bat ematen digute eskura ditugun ikerketek. Hala ere, liburugintzaren in-dustriaren joera nagusiak zein diren aztertzekeo balagarriak dira datuok, aurreko urteetako joeren jarraipena erakusten baitute. Ikusteke dago zen-bateraino hautsiko diren joera horiek pandemiaren eraginez.

ARGIALETXEAK

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako txostenak jasotzen duenez, 108 argi-taletxek plazaratu zituzten euskarazko liburuak 2019an.^[1] Horietatik 95 argi-taletxe pribatuak dira, eta gainerako 13ak erakunde publikoak. Argialetxe pribatuen artean gehiengoa Bizkaian eta Gipuzkoan kokatuta dago, 24 eta 23, hurrenez hurren. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian bederatzi argialetxe leudeke, eta bakarra Araban. Euskaraz argitaratzen duten 29 argialetxe dau-de Kataluniako eta Espainiako Esta-tuko hainbat herrialdetan: bederatzi Bartzelonan, hamaika Madrilén, bi Val-entzian, bat Badajozen eta beste seiren kokalekua zehaztu gabe dago. Argia-letxe pribatuez eta erakunde publikoez gain, egile-editoreak ere kontuan hartu behar dira, nahiz eta azterketa honeta-tik at geratzen diren, haien pisu txikia dela eta. Orotara 61 zerrendatzen di-tu txostenak, 38 Gipuzkoan, hamaika Bizkaian, bederatzi Nafarroan eta ba-na Bartzelona, Madril eta Valladoliden. Horien guztien artean 82 izenburu ar-gitaratu zituzten 2019an.

Oraindik 2019ko liburugintzaren az-terketa ez du argitaratu *Jakinek*, baina 2018an titulu gehien argitaratu zuten hamar argialetxe pribatu nagusien ze-rrendari erreparatu diogu, erreferentzia gisa.^[2] Haien kalkuluen arabera, nobe-dadeak zein berrargitalpenak kontuan hartuta, orotara 1.062 titulu argitaratu zituzten argialetxeok 2018an, aztertu-

tako ekoizpen osoaren ia erdia. Zerren-daren buruan Elkar argialetxea dago, 254 titulurekin, horietatik 87 direlarik nobedadeak, ekoizpen osoaren % 11,9. Bigarren argialetxe nagusia Edelvives-Ibaizabal dela dio Eizagirrek, ekoizpen osoaren % 9,1 osatzen duten 194 titulu-rekin –horietako 16 soilik berrargital-penak–. Zerrendako hurrengoek pisu txikiagoa dute, baina ez txikia, guztiek dute ekoizpen osoaren % 2,4 eta % 4,8 arteko tarte. Susaeta, Ikaslar, Erein, Santillana-Zubia, Ttartalo, Edebé-Gil-tza, Anaya-Haritz eta Ikasmina dira zerrenda osatzen dutenak.

Hainbat ondorio aipatzen ditu Eiza-girrek. Batetik, handienak ere aski txi-kiak direla, tituluen kopuruan, bederen. Bestetik, hamar argialetxetik seiren egoitza nagusia ez dagoela Euskal Herrian. Beherago ikusiko dugun bezala, euskarazko liburugintzan bereziki zati handia dagokio testuliburuaren eta haur eta gazte literaturako ekoizpenari, titu-luetan zein fakturazioan. Hain zuzen ere, horien argitalpenean jarduten du-te 2018ko argialetxe pribatu nagusie-nak izan zirenek. Joan Mari Torrealdai-k adierazten zuen kezka, Euskal Herrian egindako eta bertarako pentsatutako hezkuntza proiektuak pisua galtzen ari zirela, kontuan hartzekoa da. Bai-na zergatiari erreparatu behar zaio, eta gutxitan egiten da hori.

Hipotesi gisa planteatu daiteke, ziur aski erratuégi ibili gabe, askoz ere hobeto erantzun diezaiokeela merka-tuaren logikari Espainiako Estatuko hizkuntza desberdinetan testulibu-ruak argitaratzen dituen Edelvives gi-sako talde editorial handi batek Euskal Herrian kokatutako eta testuliburuak soilik euskaraz ekoitziko lituzkeen edozein enpresak baino euskarazko liburugintzaren industria-rako handia izanda ere.

Horrekin lotuta, beste ondorio in-teresgarri bat ere atera daiteke argi-taletxe nagusien taula horretatik, eta hori da Elkar konglomeratuaren ga-rrantzia. Egoitza Euskal Herrian duten argialetxe nagusietatik hiru dira Elkar Taldearen parte edo adar: Elkar bera,

Hipotesi gisa planteatu daiteke, ziur aski erratuégi ibili gabe, askoz ere hobeto erantzun diezaiokeela merkatuaren logikari Espainiako Estatuko hizkuntza desberdinetan testuliburuak argitaratzen dituen Edelvives gisako talde editorial handi batek Euskal Herrian kokatutako eta testuliburuak soilik euskaraz ekoitziko lituzkeen edozein enpresak baino

Ttarttalo, eta Ikaselkar (Ikastolen Elkartearena eta Elkar Fundazioarena dena). Beraz, batetik, merkatuaren zati handiena proportzioan sail gutxi batzuen, hezkuntza arautuko testuliburuaren eta haur eta gazte literatura-
ren, erabat mendekoa da. Era berean, errentagarrienak diren eremu horietan hoberen kokatzen direnak dira azpiegitura handien eta dibertsifikazio esanguratsuaren babes ekonomikoa duten argitaletxeak. Batzuk Euskal Herri mailakoak, Elkar eta Erein gisakoak, eta beste batzuk Espainiako Estatu mailakoak edo oraindik eta eskala handiago-
ko egituretan integratutakoak: esaterako, Ikasmina Grupo SMren zigilu bat da; Santillana, aldiz, Finlandiako argitalpen eta komunikazio talde handiena den Sanomak erosi zuen 2020an; Anaya argitaletxea Hachette multinazional erraldoiaren parte da 2004tik, zeina Lagardère arma eta komunikazio enpresen konglomeratuaren zati bat baino ez den.

2019ko datuen arabera, EAEn euskaraz zein beste hizkuntzetan argitaratzen duten 108 argitaletxe pribatuen artean 16 baino gutxiago dira enpresa talde edo holding bateko kide.^[3] Hala eta guztiz ere, datuetan ez da ageri ea enpresa horien ekoizpena ekoizpen osoaren zein zatiri dagokion. Orain arte ikusitakoarekin, hala ere, pentsa daiteke zatirik esanguratsuen dagokiela enpresa horiei.

Euskarazko argitalpenen 2019ko txostenak^[4] lurralde batzuetako titulu gehien argitaratu dituzten argitaletxeak baino ez ditu ematen: Nafarroan Pamiela, Txalaparta, Igela eta Cenlit, Bartzelonan Vicens Vives, eta Madrilen Anaya, Susaeta eta Bruño. *Jakinek* argitaratutako 2018ko datuei helduz, ziur aski Elkar eta haren taldeko argitaletxeak leudeke Gipuzkoan titulu gehien argitaratutakoen artean, eta Ibaizabal eta Giltza, besteak beste, Bizkaikoen artean.

Argitaletxe pribatuek sorturiko enpleguari buruzko datuak ere ematen ditu 2019ko txostenak. Guztira, euskarazko liburuak argitaratzen dituzten

